

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asunzion Kortabarria Gabilondo

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1932-2021)*

Aurkibidea



Biografia



Irimoegigoena auzoko Arreluztxiki baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebatatik bosgarrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Bergarako Elosu auzoko Zautegi (gaur galduta) baserritik etorritakoa. Antzuolako eskola nazionaletan ikasi zuen zazpi urtetik hamalaura arte. Arreluztxikin bizi izan zen ezkondu zen arte, etxeko eta baserriko lanak eta lantegikoak uztartuz. Erredurak sendatzeko argizari olio eta San Juan lorekin egindako erremedioak prestatzen ikasi zuen amarengandik. Aitak eta anaia zaharrenak etxerako gurdiak eta uztarriak egiten zituzten. Zerbitzari lanean jardun zuen Zarautzen bi udatan. Hemeretzi urterekin Antzuolako "Hilaturas" lantegian hasi zen lanean, ehungintzarako haria egiten, eta bertan jardun zuen ezkondu zen arte. Oñatiko Iñaki Kerexetarekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.

Zintak

ANT-087

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-14
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Nati maistra jatorra

- **Erref:** ANT-087/003
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:02:27. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskola nazionalean ikasi zuen. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten, bina eskola zeuden. Beraien maistra nafarra zen, Nati, oso jatorra. Eibarko Alfako lantegira joan zen gero bertakoen umeentzako partikular bezala aritzeko. Beste maistra Andaluziakoa zen eta ez zuten hain gogoko.

2. Eskolan euskaraz egiten zuenari kordioa

- **Erref:** ANT-087/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Maistrak dena egiten zien erdaraz, galarazita zegoen euskaraz egitea. Kordio bat jartzen zien lepotik zintzilik eta aste bukaeran hori zuenak zertxobait ordaindu behar ziaten zuen. Kaletarrak eurak baino azkarragoak ei ziren, eta euskaraz eginarazten zien nahita.

3. Esnea eta egurra maistrarendako

- **Erref:** ANT-087/005
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Baserritarrek maistrari esnea eraman behar izaten zien egunero, baina pagatuta, noski. Sutarako egurra ere eramaten zien.

4. Gerraostean jeneroa entregatu arren goserik ez

- **Erref:** ANT-087/007
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean baserriko jeneroa entregatu behar izaten zuten. Garia, artoa, baba... denetarik jaso eta saltzen zuten. Errotara ere gurdikadak eramaten zituzten.

5. Baserrian nahi beste jaten zuten

- **Erref:** ANT-087/009
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Eskean aritzen zireneri beti ematen zien zer edo zer. Bergarako andre bat askotan joaten zen eta beti ematen zioten jatekoa: esnea, baba... Egunero jaten zuten antzeko jatekoa: porru-patatak, babak azarekin, artoa eta esnea... Domeketan jaten zuten desberdin. Behin bere neba batek betekada itzela harrapatu zuen eta medikuarenera joanda hark zera esan zion: "Hau kolean ez dok pasatzen!". Kolean ez zuten horrela jateko aukerarik. Ezkondu ostean kaleko jendeari gerraosteko miseriei buruz berbetan entzuterakoan, berari guzti hori arrotza egiten zitzaion. Kolean jasotzen zuten errazionamendua: olio, azukrea, txokolatea, tabakoa... Etxean ez zegoen erretzailerik eta beraien parte don Leandro abade oñatiarrak hartzen zuen.</p>

6. Ardiak gobernatzen

- **Erref:** ANT-087/011
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Behiak, idiak eta ardiak zituzten etxean. 54-60 ardi zituzten, denak aritzen ziren artzain lanetan, baina txakurra zuten lagun. Mendiko txaboletan egoten ziren. Bildotsak otsaila hasieran jaiotzen ziren eta maiatza orduko antzutu. Orduko eginbeharrak azaltzen ditu. Txakur batzuk ardi-hiltzaileak zirela dio.

7. Ganaduaren jatekoa: belarra, artazala, arbia...

- **Erref:** ANT-087/012
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:09. **Bukatu:** 00:21:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Ganaduarentzako jateko bila beraien lur batzuetara joaten ziren. Belarra batez ere ardientzako zen. Labeen egindako artazala eta artoa txahalei ematen zieten esne ona eman zezaten. Erremolatxa egosia ere ematen zitzaien. Eguraldi ona zegoenean, larrean egoten ziren.</p>

8. Aita eta neba ikazkin

- **Erref:** ANT-087/013

- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Aita eta neba zaharrena basoan egoten ziren askotan: egurretan, ikatza egiten... Ikatza Patricio Etxeberria lantegira eta Labe Garaietara saltzen zuten. Gainerako nebak apopilo egoten ziren kalean ofizioa ikasten zuten bitartean.

9. Lihoa erein eta haria egin

- **Erref:** ANT-087/015
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

<p>Beraien etxean amak egiten zuen haria, makina zuen horretarako. Lihoa ereiten zuten etxean, bere amandreak beti erein ei zuen. Antzuolan bi etxetan ereiten zuten. Lore urdin polit bat da lihoa, polit-polita. Zuztar eta guzti ateratzen zen eta etxe ondoko errekan zortzi bat egunetan beratzen izaten zuten. Eguzkitan izaten zuten "tranga"rekin jo orduko. "Txarrantxa" zertarako erabiltzen zen azaltzen du.</p>

10. Lihoarekin kirruzko izarak egin

- **Erref:** ANT-087/017
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:29:29. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Bere amandreak etxean lihoa ereiten zuen. Lihoa zelan landu behar zen azaltzen du. Horrekin gero kirruzko izarak egiten zituzten. Kanean zegoen telak egiten zituen emakume bat. Gerora, lihoa eta kotoia nahastuta egiten zituzten. Bera gaztea zela utzi zioten lihoa ereiteari. Mataza zelan egiten zuten. Azpiko izarak egiten zituzten batez ere. Guzti hori egiteko erabiltzen ziren tresnak azaltzen du.</p>

11. Lixiba egiten

- **Erref:** ANT-087/019
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:36:33

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Kirrua eta lihoa gauza bera da. Lihoa ere horixka da, kirruzko izarak eta haria ez dira zuri-zuriak. Lixiban egosita garbitzen ziren. Lixiba zelan eta zerekin egiten zuten azaltzen du. Etxetik gertu zuten iturri batera astoz eramaten zituzten eta bertan garbitu.

12. Argizaria olioarekin eta San Juan loreak kolpe eta erredurentzako

- **Erref:** ANT-087/020
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:41:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Etxean ez zuten erlerik. Bera nebak izan ditu eta argizariarekin olio egiteko ematen zion argizaria; izan ere, oso ona da kolpe edo erredura baten ostean kolpatutako tokian jartzea gorritasunik ez izateko. Zelan egiten den azaltzen du pasarte honetan. Bere amak bere auzoko guztiei erakutsi zien. San Juan loreak, San Juanetan bakarrik irteten diren lore gorri batzuk, ere oso onak dira kolpeentzat. Hauek zelan prestatu behar diren azaldu du Asunzonek. Bere neba bati behin esnea irakiten burutik behera jausi zitzaion eta argizaria olioarekin jarri zion amak.

13. Azpiak ateratzen

- **Erref:** ANT-087/026
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Azpiak ateratzeko sastaian lerak jarri eta handik satsa egoten zen lekura eroaten zuten bertan hustutzeko. Zortzi egunetik behin egiten zuen lan hori. Garoa egunero botatzen zuten.

14. Hamalau lagun etxean eta baita eskekoak ere

- **Erref:** ANT-087/030
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:52:13. **Bukatu:** 00:53:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Hamalau lagun bizi ziren etxean: bederatzi neba-arreba, gurasoak, osaba, amandrea eta aitajauna. Ijito eta eskeko asko ibiltzen zen eskean eta lasto artean ganbaran askotan egiten zuten lo, konfiantza osoz gainera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com